

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA OSASUNA III

I.3. AMETSETAN

4. maila



Nolatan lortzen duzu lagun baten etxerako bidea gogoratzea? Zergatik klikatzen dituzu begiak konturatu gabe? Nondik datoz ametsak? Gauza hauetaz guztietaz zure garuna arduratzen da. Izan ere, garuna gorputzaren "zuzendaria" da. Dena zuzentzen du eta egiten duzun ia guztia kontrolatzen du. Berari esker, matematikako problemak ebatz ditzakezu eta, baita ere, bideojokoekin jolastu, zure arrainei jaten eman, dantzatu, zure neba-arrebaren urtebetetzea gogoratu, marraztu...

01

Idatzi zuk egin dezakezun jardueraren bat, non zure inteligentzia erabili behar duzun. Aurreko testuan aipatzen diren jardueretatik aparteko bat aukeratu.

Erantzuna:

Segi irakurtzen, zure garunaren atal garrantzitsu batzuez gehiago jakiteko.

Kortex edo garun-azala.

Garunaren pisuaren %85 da.

Pentsatzen duen garunaren atala da.



Zerebeloa.

Azala baino zortzi aldiz txikiagoa da.

Oreka, mugimendua eta koordinazioa (zure giharrek elkarrekin nola lan egiten duten) kontrolatzen ditu.



Garun-enborra.


Garuna bizkarrezur-muinari lotzen dio.

Oharkabeko mugimenduak kontrolatzen ditu, alegia, pentsatu gabe mugitzen direnak: Adibidez, arnasketa, jakien digestioa, odol-zirkulazioa eta abar.



Hipokanpoa.

Oroimenaz arduratzen da.



02

Aurreko informazioaren arabera, zein garun-atal arduratzen da bizikletan goazenean eror ez gaitezen?

- A. Zerebeloa.
- B. Hipokanpoa.
- C. Garun-enborra.
- D. Kortex edo garun-azala.

GOI MAILAKO INTELIGENTZIA DUTEN ANIMALIA BATZUK		
	Animalia	Garunaren pisua
	 Gizakia	1,4 Kg.
	 Izurdea	1,7 Kg.
	 Elefantea	4,5 Kg.
	 Kaxalote (balea) heldua	9,0 Kg.

03

Adieraz ezazu hurrengo ondorioen artean zein den egiazko bakarra:

- A. Garunaren tamaina zenbat eta handiagoa, adimena handiagoa.
- B. Garunaren tamainak ez du zerikusirik adimen-mailarekin.
- C. Gizakia da animaliarik azkarrena, bere garuna handiena delako.
- D. Harreman zuzena dago garunaren tamainaren eta animaliaaren pisuaren artean.

Dakizunez, gizakia Lurreko animaliarik azkarrena da.

Klasean gizakiaren garuna beste animalia-espezie batzuen garunarekin konparatzen ari gara. Jokinek, Amaiak eta Beñatek hurrengo datu hauek aurkitu dituzte Interneten:


"Garunaren pisua / gorputzaren pisua" erlazioa	
Satitsua (karraskari mota bat)	Gorputzaren pisua garunaren pisua baino 10 aldiz handiagoa da
Gizakia	Gorputzaren pisua garunaren pisua baino 60 aldiz handiagoa da
Elefantea	Gorputzaren pisua garunaren pisua baino 1.000 aldiz handiagoa da
Brontosaurua (desagertutako animalia)	Gorputzaren pisua garunaren pisua baino 100.000 aldiz handiagoa da



Satitsua



Gizakia



Afrikar elefantea



Brontosaurua

04

Amaiak pentsatzen du ez dagoela zerikusirik garunaren pisuaren eta animalia-aren gorputzaren pisuaren artean.

Honek azalduko luke garun handiko animalia batzuk garun txikiagoko beste animalia batzuk bezain azkarrek ez izatea...

Amaiak adierazi duena, zer da zure ustez?

- A. Inolako oinarririk gabeko ideia.
- B. Egia zientifikoa eta frogatua.
- C. Datuetatik atera duen ondorioa.
- D. Asmatu egin du, ideia hau egiaztatzeko daturik ez baitago.

Ikasle talde bat ametsei buruzko informazioa biltzen ari da. Pertsona guztiek amets egiten ote duten jakin nahi dute eta, baita ere, ametsak nola sortzen diren, zertarako balio duten eta abar.

Hurrengo informazio hau aurkitu dute Interneten:

Garuna etengabe ari da lanean. Lo zaudenean ere, era guztietako gauzak egiten ditu. Lo zure gorputzarentzako atsedenaldi moduko bat da.

Zientzialarien ustetan, lo gaudenean, garunak egunean zehar gertatu zaiguna sailkatu egiten du. Gauza garrantzitsuak oroimenean gordetzen dira eta gainerakoak desagertu egiten dira. Jendeak etxeko gutunontzira heltzen denarekin bezala egiten du: garrantzitsua gorde eta ezertarako balio ez duena bota.

05

Testua irakurri ondoren, Kikek berari berdin gertatzen zaiola esaten du: ez du gogoratzen egiten duen guztia edo kalean ikusten dituen pertsona guztiak.

Zergatik uste duzu gertatzen zaiola hau?

- A. Oso lo sakona duelako.
- B. Oroimen eskasa duelako eta amets egindakoa ahaztu egiten zaio.
- C. Lo gaudenean garunak informaziorik garrantzitsuena bakarrik gordetzen duelako.
- D. Jende askori gertatzen zaion bezala, hurrengo egunean ez duelako amets egindakoa gogoratzen.

Marta lo dago. Amets zoragarri baten erdian dago. Bere familiarekin nabigatzen ari da. Bat batean, munstro bat agertzen da eta itsasontziari eraso egiten dio. Marta iraulkatu egiten da ohean itsas munstroa menperatu nahian... Orduan izerditan blai esnatzen da.

Amesgaiztorik izan duzu inoiz? Ia pertsona guztiek, bai helduek bai hurrek, izaten dituzte Amesgaiztoak noizean behin. Beldurgarriak izan arren, ez dira errealak eta ez dizute kalterik egiten.

Ametsak Amesgaizto bihur daitezke, egunean zehar gertatzen diren arazoen ondorioz: adibidez, etxeko edo ikastetxeko arazoak, kirolak edo ikastetxeko lanak sortutako estresa eta abar. Batzuetan, aldaketa handien ondorioz Amesgaiztoak izan ditzakegu, adibidez, etxez aldatzean edo asko maite duzun pertsona bat gaixorik egotean edo hiltzean.

Ohera joan baino lehen beldurrezko filmak ikusten ditugunean edo beldurrezko liburuak irakurtzen ditugunean ere Amesgaiztoak izan ditzakegu.

06 Zein izan ote da Martaren Amesgaiztoaren arrazoia?

- A. Nabigatzea edo itsasoan igeri egitea batere gustukoa ez izatea.
- B. Oheratu baino lehen lagun bati gutun bat idaztea.
- C. Telebistako lehiaketa bat berandu arte ikusten geratzea.
- D. Bihar ikaskideen aurrean lan bat aurkeztu behar izatea.

07 Aurreko testuaren arabera, zer esan nahi du Amesgaizto bat izateak?

- A. Arazo bat daukagula.
- B. Ezbehar edo istripu bat gertatuko dela.
- C. Kirol gehiegi egiten dugula.
- D. Osasun-arazo bat izango dugula.



Ametsei buruz Interneten aurkitu dituzten informazioen artean hurrengo hau dago:

Lo zaudenean, usaimena, ukimena, dastamena eta ikusmena
«deskonektatu» egiten dira, baina entzumenak lanean segitzen du.

08

Aurreko testuaren arabera, hurrengo gertakarien artean, zeinek esnatuko zaitu seguruenez lo zauden bitartean?

- A. Sute bateko keak.
- B. Kaleko farola baten argiak.
- C. Arrain frijituaren usain gogorrak.
- D. Auzoko baten musika altuak.